

# Pagoaren izenaz eta izanaz, palinologiaren argitan

MIKEL OLANO IRURTIA\*

«En qué medida pueden ayudar los préstamos a la prehistoria de una lengua: estacas-testigos en un glaciar» (Mitxelena 1991: 25)

«En áreas de montaña resulta especialmente difícil conocer la cronología del avance de los glaciares debido a la intensa actividad erosiva que desarrollan en su progresión, con la que borran además los restos que dejaron glaciaciones más antiguas» (Montserrat 1992: 8)

## 1. AURREKARI BATZUK

Naturari filologoaren arretaz begiratu diotene askok egin dute pagoaren izen maileguari buruzko gogoeta zerbait, eta jakin badakit ez dela erraza izanen alor honetan deus berririk gaineratzea<sup>1</sup>. Saiatzekotan, agian gogoetaren doinua desberdin doitzen saia ninteke. Aitor dut, izan ere, ni ere aire erromantikoak erasan eta sorgindu ninduela aurrena, aspaldi Federiko Barai-bar bezala: «El árbol más hermoso y quizá más abundante de las florestas vascas, carece de nombre indígena en el vocabulario euskérico» (1918: 29). Halere, ez nuen erraza, euskararen *huts* hura betetze alde, Larramendiren apologiak eskainitako alternatiba onartzea: «Haya, árbol, *pagoa*, *fagoa*, y de aquí el Latino *fagus*» (1984 [1745]). Horrela bada, *Fagus sylvatica* especie botánikoen inguruko literatura lingüística ugari bezain interesgarri zela ohartu ahalia, begiratu azkarra baino tresna erneagoren bat trebatu beharko nuela pensatzen hasi nintzen; hala nola, Azkueren zuhurtzia: «Pago. Dúdase de si *fagus* latino será anterior ó posterior á esta palabra. *On peut se demander si le fagus latin est antérieur ou postérieur à ce mot*» (1984 [1904-5]); edota Campionen

\* Euskal Filologian lizentziatura.

<sup>1</sup> Eskerrak zor dizkiet Antton eta Iñaki anaiei, egin dizkidaten ohar guztiz jakingarriengatik. Halaber, ezin ahaztuko dut Florentzio Huarte adiskidearekiko dudan zorra, hark eskuratu baitzidan ikerketa honetako abieran jarri ninduen testua. Azkenik, Leitzako liburutegiko arduradun den Jose Luis Huarteri, emandako argibide informatikoak eskertu nahi nizkioket.

analogia: «La razón de haber admitido el neologismo no la descubro por tratarse de una especie arbórea común cuyos bosques contemplaban de continuo los baskos, sobre todo, habiendo retenido, como retuvieron, el nombre indígena de otros árboles igualmente comunes» (1985 [1930]: 254).

Jar gaitezen euskalari aitzindari haien lekuan: itxuraz euskal erro *garbia* zuten izenekiko landare multzoa ikusten zuten inguruau (*arte, lizar, haritz, elorri, hultz, hurritz, ler, ezki, hagin...*), eta, gisa berean, orbangabea irudituko zitzaien izen horien ondorengo toponimia ugariaren soinua: «El euskaldun está completamente identificado con la flora de su país actual, excepto el dejó románico que tienen los nombres del haya y el castaño» (Aranzadi 1905: 29)<sup>2</sup>. Salbuespenak, berriz, erraz begiesteko modukoak ziren, eta, gainera, izen “arrotz” haietako batzuk –eta Aranzadik aipatzen ez zituen beste zenbait (*gerezi, mizpira, piku, muxika...*)– aisa zuritu zitezkeen; jakina da, esate baterako, erromatarrek fruta arboletan maisu izan zirela eta etorkin haietxek bultzatu zutela –iritsi zituzten Europako lurrardeetara bederen– gaztai-nondoaren aldaketa, zereal lantzea nekeza zen lekuetan haren fruitua oinarritzko mantenu gisa balia zedin<sup>3</sup>.

Pagoaren izena zen, beharbada, misteriorik harrigarriena; hain landare ederra («árbol gala de nuestras selvas» esaten dio Baraibarrek (1918: 30)), ugarria (*sylvatica* adjektiboak adierazten duenez, oihanak hedatzeko ahalmena baitu) eta bertakotua izanik, ez baitzen erraz ulertzen nondik nora zetorkion zain arrotz hori: «El país vasco está perfectamente dentro del área de este árbol europeo y sin embargo todas las apariencias de su nombre son latinas», zioen Aranzadik (1905: 18)<sup>4</sup>.

Izan ere, garai haietako testuak irakurtzerakoan, gogoan hartu behar da Sabino Aranaren eta haren segiziokoen arbuio puristek oraindik itzal handia izaten zutela; *pago* izenari etorburu latinoa aitortzea, esaterako, asko zen “euskal garbitasunaren” kaltetan. Campionen hurrengo pasarte hau adibide ona liteke, ikergai hotza baino barrenago heltzen zen kezka haren sustraiari antzeman diezaiogun: «Latino sin objeción posible, es el nombre basko del “haya”: *fago, pago, bago*, como lo es el céltico. Este árbol es hoy común y, al parecer, espontáneo en la región éuskara. El caso de que lleve nombre latino es de veras sorprendente, y sugiere variadas hipótesis y graves consideraciones que sucintamente daré a conocer: a) el nombre, por causas ignoradas, lo olvidaron los baskos de todas las regiones, adoptando universalmente el aliení-

<sup>2</sup> Denak ez ziren, ordea, euskara garbi edo mailegu erromaniko izanen. Esate baterako, *Orotariko Euskal Hiztegiak* dioenez, *gorosti* izenak ahaide garbiak ditu sardinieran: «*golōstru, golōst(r)i, colostri*».

<sup>3</sup> *Gaztain* izenaren mailegua zela bide, Mitxelenak eta Polgek honako hipotesi hau erabili zuten, bestek beste: «les basques n'ont connu le châtaignier que relativement tard, à l'époque historique et au contact des latins» (1971: 13).

<sup>4</sup> Eta jarraian, honako akuiul hau eransten du Aranzadik: «si en vez de referirse á una especie determinada de árbol y montaraz é indígena por más señas, expresase una idea general, abstracta ó referente al espíritu ó un alto grado de civilización, poco que la hubieran zarandeadlo los filólogos de la escuela clásica». Euskalari zenbaitek aipatzen zuten euskararen ajeetako bat, hain zuzen, izen abstrakturik gehienak maileguak izatea baitzen. Geroago ere jarraituko zuen polemika horrek: ikus, adibidez, *zuhaitz* hitza aitzakia zela, Vinson 1919, Lacombe 1920 eta Urquijo 1920. Dena den, gaur egun polemika soinu antzekoak entzuten direla esanen nuke.

gena. Acaso se le halle en algún rinconcito lingüístico inexplorado del país. Acaso se mantiene en algunos nombres toponímicos inexplicados, de los cuales pudiera extraerle el análisis comparativo o alguna inesperada indicación lingüística en algunos documentos. *b)* el nombre ha cambiado de significación y se transfirió a otras especies; de estos cambios hay ejemplos en muchos puntos. *c)* los baskos vinieron a su actual morada de países donde no había hayas, y el nuevo estaba ya habitado por latinos o latinizados que les habían dado ya nombre, y de éstos se tomó prestado el de *fago*, *pago*, *bago*. *d)* la vegetación forestal cambió, como se cuenta de Dinamarca<sup>5</sup>, y las hayas se dejaron ver en nuestro suelo cuando ya le ocupaban los romanos» (Campión 1985 [1930]: 253-254).

## 2. PAGOA HIZPIDE, GREZIATIK ARABARAINO

Izenak izana salatzen duela esan ohi da gurean, Barandiaranek gogorazi bezala. Horrela bada, pagoarenak franko mailegu gardena zirudien mende hasierako euskalrientzat, eta, halere, azalpen zaila zuen, landarearen jatorriak berak zain ezkuturen bat izan behar zuelako susmoa baitzegoen. Izan ere, ikerketa linguistikoak kamuts samar zirelarik, natur zientziak ere ez ziren oztopo guztiak gainditzeko gauza, eta, palinologia zer zen ez jakin arren, Campion jaunak, esaterako, haren beharra aldarrakatzen zuen: «Mi falta de conocimientos botánicos y geológicos me veda en absoluto resolver si las hayas son antiguas o modernas en la región pirenaico-baskona» (1985 [1930]: 253).

Haritzarekin batera euskal oihanaren “intsignia” zen arbolari izen latinoa aitortu behar izatea, ordea, ez zen, nolabait esateko, gustuko gauza. Eta, handik edo nondik, euskal sena zuen deitura sortu nahiko zion bat edo batek. Baraibarren hipotesia, adibidez, motza izanik, ederra zen: Arabako toponimian, lau leku-izenetan ez bestetan aurkitu omen zuen *pago* osagaia, eta, Arabako basoetan landare hura hain ugari izanik, ezin konpreni zezakeen nolantan ez zen toponimian sarriago agertzen. Horrela bada, *gazabi* (“pagatxa, pago ezkur”) hitzetik abiatuta, behiala pagoaren izena *gaza* eta lehenago *basa* izan zela erabaki zuen, *basa* osagaia arruntean aurkitzen baita toponimian: «*basa* igual á *gaza*, suplantados por el alienígena *fago*, *pago*, resultan el nombre indígena del haya, cuya desaparición del vocabulario vascuence era verdaderamente extraña»<sup>6</sup> (Baraibar 1918: 30).

Pagoaren deiturak, ordea, askoz ere eztabaidea luzeagoak eragin ditu atzerriko hizkuntzalarien artean, eta, dirudienez, korapilotu ere egin ditu indo-europar askaziaren iturburua zehatz ezagutzeko bideak. Gero sarri erabiliko dugun paleobotanikaren esanetan, *Fagus sylvatica* especiea ez omen da inoiz hazi Prusia ekialdea eta Itsaso Beltza lotzen dituen irudizko lerrotik ekialde-

<sup>5</sup> Aranzadik ere bazeukan Danimarkako pago zabalkundearen berri: «hay que advertir que en Dinamarca no lo había en los tiempos prehistóricos del hierro ni anteriores» (1905: 18).

<sup>6</sup> Baraibarren saio horixe zuen Campionek gogoan, goian aipatutako a hipotesia antolatzean: «el nombre, por causas ignoradas, lo olvidaron los baskos de todas las regiones, adoptando universalmente el alienígena. Acaso se le halle en algún rinconcito lingüístico inexplorado del país» (op. cit. 253). Argi dago, ordea, *gazabi* hitza *bagazi*-ren metatesiz sortua dela.

ra, hau da, indoeuroparren sorleku izandako Errusia hegoaldeko zabaldietan, bestetan beste. Nolanahi ere den, hizkuntzalarien indoeuropartzat jotzen du-te *fagus* hitzaren jatorria, eta, formari dagokionez, hainbat ahaide aurkitu dizkiote hizkuntz familia zabal horretan: germanikoan (ingelesa) *beech*, (alemaniera) *buche*; grekoan (atikoa) *phegós*, (dorikoa) *phágos*; eslavieran (bulgarie-ra) *buz*, (errusiera) *bozu*. Eta horien guztien iturrama \**bhaug-* / *bhug-* erroa omen liteke. Bada, ordea, bestelako korapilorki ere: gaur egun “pago” esanahia hizkuntza germaniarretan eta latindarretan gertatzen da bakar bakkrik; hain zuzen ere, grekozko ulermodu “haritz” izaten da, eta hizkuntza eslaviarretan, berriz, “intsusa” ulertzen omen dizute *buz* edo *bozu* aipatuz gero. Beraz, oraindik ikasteko dago “pago” esanahia estrainekoa den ala germaniak eta latindarrek asmatutako berrikuntza<sup>7</sup>.

### 3. KLIMAREN ETA LANDARETZAREN HISTORIA: PALINOLOGIAREN EKARRIA

Campion, Azkue, Aranzadi, eta abarrak, pago landareen hedatzeari buruzko datu gehiago ez jakiteaz kexu izaten ziren; hain zuzen ere, hutsune horixe betetzera dator palinologia. Ikasbide honen bitartez, argudio zehatzak aurkitzen dira, mendez mende lur geruzetan txertatutako polen aleak aztertu eta garaiz garai zein landaretza mota bizi izan den eta nola bilakatu den ulertu ahal izateko. Horrela bada, paleobotanikaren tresna ezinbesteko bihurtu da<sup>8</sup>.

Atal honetan, azken milurteetako klimaren eta batez ere landarediaren “historiari” begiratuko diogu, Pirinioetakoari bereziki, mendikatea hau izan baita euskal herrietako gizartearen bizkarrezur geografikoa, herri haien neolitikoan gorpuzten hasi zirenetik. Beraz, azken glaziazioan abiatu eta neolitiko garaian gizakiaren urratsa gailentzen den arteko denboraldia miatuko dugu, Montserratek 1992an argitaraturiko sekuentziari jarraituz, batik bat<sup>9</sup>. Horrela, pagoa zein kontestu klimatiko eta ekologikotan iritsi zen ulertzten saiatuko gara.

a) Azken izotzaldiaren gailurra duela 20.000 eta 15.000 urte bitartean geratu zen. Ordutik aurrera, piskanaka, glaziarra altura apalenetatik desageratzen hasiko ziren, eta landaretza, ezari-ezarian, gero eta ugariago, gero eta gorago haziko zen. Garai honetako landaretza, halere, estepa modukoa zen. Baino izotzaldiak ez zuen berdin jo leku guzietan, jakina baita Koaternario-

<sup>7</sup> Ikus argibide horiek in Bynon 1981: 379-381.

<sup>8</sup> Dena dela, hain denboraldi luzeak azterzen dituzten gainerako zientziak bezalaxe, palinologia ez da pagotxa: «no resulta fácil hacer desaparecer totalmente un cierto nivel de incertidumbre en la interpretación de los resultados. Numerosas polémicas originadas a raíz de estos problemas de interpretación se mantienen todavía sin resolver (desaparición del olmo, extensión del haya y de las encinas...)» (Montserrat 1992: 103).

<sup>9</sup> Ez dago alde handirik Peñalbak Iberia iparralderako deskribatutako sekuentziarekin. *Abies* esperierik ez azaltza liteke, beharbada, bereizgarri nabarmenena. Begi eman, halere, hemen soilik Holozeno garaiazen ari dela: «Since a similar pre-Holocene vegetation dynamics is shown in Cantabria and everywhere north to the Pyrenees in Europe, we assume that the major zones of the vegetation sequence for Quintanar de la Sierra and northern sites, from the beginning of the Holocene to the present day are the following: 1 *Juniperus*; 2 *Betula*; 3 *Betula*, *Pinus*, spread of *Quercus*; 4 *Quercus/Corylus*; 5 spread of *Fagus*; 6 *Fagus*; 7 decline of *Fagus*; 8 *Pinus*» (Peñalba 1994: 823).

an zehar ekialde-mendebalde gradiente bat gertatu zela Pirinioetako temperaturetan; hau da, ekialdea beratzago izaten zen mendebaldea baino. Beraz, Pirinioetako ekialdean betiereko elurra 2.150 metroko mendietatik gora hasten zen garaian, Iberiar penintsulako mendebaldean aski zituen 1.100 metro, udaldi osoa igarotzeko.

b) Duela 13.000 urte inguru, “glazazio berankorra” (*late-glacial* delakoa) garatzen hasi zen, zeinetan oraindik hotza gehiegizkoa zen basoak gora egin ahal zezan. Bizkaiko Golkoaren inguruau batik bat, Atlantikoko izotz geruzatik zetorren haizeak asko hozten zituen bazterrak<sup>10</sup>. Dena den, klimaren goxatze doiarekin batera, *Juniperus* generoak (besteak beste, ipurua eman ziguna) mendian gora eginen zuen. Hauxe izan zen, zuhaitzetan, aurreneko aitzindaria.

c) Milurte bat geroago (duela 12.000 urte inguru), beste bi landare genero aitzindari azalduko ziren, eta nagusi bihurtuko ziren hurrengo 3.000 urteetan: *Pinus* eta *Betula*, pinuaren eta urkiaren aurrekariak hain zuzen. Ordura arte agertutako hiru generoen ondokoak (gaurko ipurua, pinua eta urkia, alegría) gaur egun ere aitzindari bikainak dira, bizi-baldintza larrietara aise egokitzen direnak.

d) Apurka-apurka, Atlantikoko izotz haizea berazten joanen zen, eta Pirinio mendebaldeko bataz besteko temperatura igo eta hezetasuna areagotu egin zen. Hortaz, duela 10.000 urte inguruz geroztik, *Quercus*, *Corylus* eta *Ulmus* generoen garapena hasi zen, gaur egungo arte-haritzak, hurritza eta zumarra eman dituztenak, hurenez hurren<sup>11</sup>. Antza denez, itsasbazterrean ere berdintsu gertatuko zen, honako honetan zumarrik aipatzen ez den arren: «En el inicio del Holoceno, hacia 9500 BP, tanto en Abauntz como en Le Moura el pino va pasando a un segundo plano a favor del roble, avellano y abedul» (Sánchez Goñi & Isturiz 1988: 363).

Ordura arte *Betula* eta *Pinus* bezala, duela 8.000-6.000 urte inguru *Quercus* generoa –altura ertaineko mendietan batez ere– oihan zabalak hedatzen hasi zen, eta bere itzalera bigarren mailako hainbat landare garatu ziren, hosto erorkorreko baso nabar eta hezea aberastuz: *Tilia*, *Fraxinus* eta *Taxus* izañen ziren genero garrantzitsuenak; hurrenez hurren, gaurko ezkia, lizarra eta hagina eman zituztenak.

e) Izaia (*Abies alba* espeziea), gorago aipatutako temperatura gradiente harren neurriira, ekialdetik sartuko zen, apurka-apurka, bere hazkuntzarako baldintza egokiak aurkitu ahala<sup>12</sup>. Pirinio erdialdea duela 5.000 urte inguru iga-

<sup>10</sup> «El frío inducido por la influencia del Océano Atlántico (...) ha de ser el responsable del gradiente detectado, de la misma manera que explica la pobre cubierta vegetal observada en Le Moura (Biarritz) y en las localidades cercanas (Lourdes, Barbazan)» (Montserrat 1992: 100).

<sup>11</sup> «El hecho de que el desarrollo de *Quercus*, *Corylus* y *Ulmus* sea lento en general, pero más rápido en la localidad de la montaña media (Tramacastilla), parece demostrar que este proceso también está clímicamente controlado, indicando que la principal limitación es la humedad. De la composición del bosque, dominado por *Pinus* y *Betula*, se puede deducir un clima continentalizado. El ambiente seco en verano limitaría la expansión de los caducifolios en baja montaña, dominada por los pinares. En montaña media, *Quercus*, *Corylus* y *Ulmus* intentan competir con *Betula*, aunque el sustrato pobre en bases favorece a este último taxón» (Montserrat 1992: 113).

<sup>12</sup> «La expansión del abeto en el Pirineo oriental se da en el límite Boreal-Atlántico [5.500 años], debido a un aumento de la humedad. En Formigal aparece un extraordinario desarrollo del abeto, que unido a la falta de hayas, puede situarla en la fase Atlántica [5.500-3.000]» (López-García 1988: 318).

ro zuen eta Iratiko basoan topatuko zuen Europa mendebaldeko azken muga, oraindik sartalderago bizi ahal izateko ingurune egokiak bazituen ere.

Pagoa (*Fagus sylvatica*) Pirinioetako ekialdetik barrena sartuko zen baita ere, baina izaia baino are motelago hedatuko zen, ez baitzuen garapen nabarmenik burutuko duela 3.000 urte arte, gizakiaren parte hartzea ozentzen hasi zen garaian hain zuzen.

Adituek diotenez, gizakiak eragin nabarmena eduki zuen izaiaren eta pagoaren hedapenean, guztiz desberdina, ordea, batentzat eta bestearentzat: izan ere, izaiari muga zorrotzak ezarri zizkion eta pagoari, aldiz, izaiaren beraren kaltetan, oihan zabalak hedatzen lagundu<sup>13</sup>.

f) Pagoa bere burua garatzen hasi bezain laster, gizakiaren itzal urratzailea agertuko zen, eta, jakina baita, arrasto nabarmena utziko zuen: «La influencia humana [en los Pirineos] empieza a ser importante en la vertiente septentrional entre 5000 y 4000 BP, favoreciendo el desarrollo del haya en contra del abeto y, a partir de 2000 BP, se generaliza por todos los valles estudiados, aumentando la presencia de indicadores antrópicos (*Cerealia, Castanea, Juglans, Vitis...*) y de signos de deforestación» (Montserrat 1992: 103).

#### 4. PALINOLOGIAREN ARGIBIDEAK AUZITAN: INTXAURRA, IPURUA ETA PINUA

Esan bezala, palinologia lagungarri gerta dakiguke *pago* izenaren argibidean; bestetara ez balitz ere, maileguaren zergatiak hobeki ulertzera bideratzen ahal gintuzke. Izen bakan batzuen kasuan, ordea, palinologia eta etimología estu-estu uztar litezkeela iruditu zait. Azter dezagun, esaterako, *hur* eta *intxaur* hitzen kasua. Gorago ikusi dugunez, *Corylus* generoa, labur jota, *Juglans* generoa baino 7.000 urte lehenago iritsi zen Pirinioetara<sup>14</sup>; bestela esanda: aurreneko euskaldunek, hasiera hasieratik –hasiera hori neolitikoaren estreinakoan jarrita ere–, Pirinioetan bertan aurkituko zuten hurritz landarea, duela 9.000 urtez geroztik bertan bizi baitzen; intxaur landarea, ordea, askoz geroago, euskaldunak zegoeneko lurrardearen ezagutzaile zorrotzak zirenean gertatuko zen, duela 2.000 urte inguru.

Pirinioetako biztanle haiiek, beraz, intxaur landarea berritzat hartuta, izen bat asmatzen hasiko zitzakzion. Ulertzeko dirudi, hain zuzen, landare “berria” bataiatzeko orduan, landare “zaharren” baten izena baliatzea. Hona hemen nola irudikatu zuen Mitxelenak *intxaur* hitzaren osaketa: «Se trata aca-so de un compuesto con (*h*)ur ‘avellana’ como último miembro» (1990 [1961]: 285). Mitxelenaren aurretik, ordea, Aranzadi ere ohartua zen aukera

<sup>13</sup> Iberiako mendebaldean, ordea, gizakiak lagundu ez, baizik eta galerazi egin bide zuen pagoaren hedapena: «Antropogenic disturbance has proved to be responsible for the final and abrupt decline of *Fagus* populations in the Cantabrian region. It is likely that severe anthropic pressure on populations of *Fagus* at their range limit stopped the spread to the west. In southern Spain, latitude and climatic conditions also influenced the spread of *Fagus*» (Peñalba 1994: 829).

<sup>14</sup> «These results point to a different date of spread of *Corylus* north (9.5 ka BP) and south of the Pyrenees (8.0 ka BP). (...) The expansion of *Corylus* from east to west through the Pyrenees could explain this time interval» (Peñalba 1994: 825). «*Castanea* and *Juglans* are better represented [at North Iberia] than at that site [Quintanar de la Sierra]; their first records have been dated at 1360 +/- 70 BP (Gif-7664) at Los Tornos and no pollen grains of these genera were recorded before 2000 BP at any site. In this zone, the effect of human disturbance on vegetation becomes evident» (Peñalba 1994: 822).

horretaz; are ausardia handiagoz, gainera: «De los árboles, que tienen lo que en euskera se llama *guerba*, la fruta con nombre más primitivo no es la bellota sino la del *Corylus avellana*=urra; de ella derivan la nuez=inchaurra y la bellota=ezkurra» (1905: 30)<sup>15</sup>.

Bestalde, balirudike palinologiak zenbait landare-izen zaharri buruzko ulerkera berritu lezakeela. Harrigarri dirudi, adibidez, *Juniperus* generoa azken izotzaldiaz geroztik antzinakoena dela jakinik, *ipuru* mailegua (eta gainerako *epuru*, *unpuru* aldaerak) gailendu izatea. Izan ere, gurean, landare autoktonoari izen erro “indigena” dagokiola pentsatzeko joera izaten ohi du gu. Zer dela eta, beraz, *ipuru* latindar mailegua?

Jakina da *Juniperus* landareak *orre* deitura jaso zuela gure Pirinioetan (maiz aipatzen den *Orreaga* izenak ongi erakusten duenez), nahiz eta XX. mendean zehar apenas usatu den Goi eta Behe Nafarroako iskinetik kanpo<sup>16</sup>. Nire ustetan, *orre* deiturak behiala hedatuago behar zuen; horren argibide ematen ahal liguke, esaterako, 1087.ean Done Miliagan jasotako HORRIA-HA leku-izenak (Ik. Arzamendi 1985: 376). Irigarayk, halaber, mailegu latinoak *orre* izena desagertarazi zuen iruditua dauka: «la existencia en Iriberry de un término llamado *Orradia*, muestra que vasc. *orrea* fue seguramente en Orba la anterior denominación del actual *jin(i)ebro*; vasc. *ipuro* podría ser forma importada» (1978: 182).

*Orre* deituraren kasuan, beraz, mailegu latinoak izen indigenaren antzinako hedadura murritzu zuela pentsa genezake. Beharbada, izenarekin batera iritsitako ipuruari buruzko usadio eta erabilera latindar bereziek (fruituaren ustiapen ugariek, adibidez) ekarriko zuten aldaketa, orain, damurik, niri gainez egiten didan erabakizuna.

Itxuraz antzekoa dirudi, baina bestelakoa behar du, *ler* edo *leher* izenaren historiak. Antzekoa: ipuruaren *orre* izena bezala, *ler* deitura indigena euskal Pirinioetako ertz-ertzera mugatu delako. Aitzitik, bestelakoa ere badda: ipuria ez bezala, eta oso berriroko pinu aldaketak burutu diren arte, Euskalerrian pinu landarea kasik ez delako Pirinioetako ertz horretatik kanpo hazi izan. Izan ere, mendez mende lurralte zabaletan nagusituagatik ere, *Pinus sylvestris* especieari Atlantikoaren baldintza bereziek erasan omen diote: «En el atlas de isoconcentraciones polínicas de Huntley & Birks (1983) puede observarse cómo *Pinus*, hacia 12 Ka, sitúa en los Pirineos uno de sus límites septentrionales de área. Un milenio más tarde ha progresado por el interior de Francia, evitando de forma sistemática la costa atlántica» (Montserrat 1992: 99)<sup>17</sup>.

Esan bezala, XIX. mendean mendi aldaketa masiboak egiteko *Pinus radiata* delakoa ekarri zuten arte, Euskalerri gehienean ezezaguna zen pinu lan-

<sup>15</sup> Baino lehenagotik, 1888an, Lacoizquetak begi emana zion *hur / intxausr* kidetasunari, botaniko narbartetarrak azalpen bihurriagoak asmatzen baditu ere. Ik. orain 1994: 148-149.

<sup>16</sup> Iribarrenek (1984) Iruñaldean eta Izarbeibarren *orrea* “enebro” jaso zuen, eta Agoitzen “aliaga” esanahiarekin. Irigarayk, berriz, *orréa* “enebro”, honako herri nafr hauetan jaso zuen: Uterga, Obanos, Ukar, Eneritz, Biurrun, Adiotz eta Muruzabalea (1977: 511). Aranzadik, azkenik, Iruñerriko *Orrio* eta Agoizko *Orreadre* uztartu zituen *Orreagarekin* (1905: 20).

<sup>17</sup> Pirinioetatik kanpoko salbuespen bakarrenetako Bardeetan berez hazten den *Pinus halepensis* especiea bide da. Bestalde, Erronkaribarreko portu gainetan bizi den *Pinus uncinata*-ri, halaber, *ler* deitzen zitzzion erronkarieraz.

darea<sup>18</sup>, eta, ondorioz, baita *ler* deitura ere. XX. mendean zehar, Zaraitzuko, Erronkariko, Behe Nafarroako eta Zuberoako hizkeretan bestetan ez dira aurkitu *ler*, *leher* edota *lerrondo* deiturak: «Izeia eta lerra aztandra oxezkietan», zioen Bidankozeko Mendigatzak (1957: 130). Aurreko ezezagutza horri zor zaio, hain zuzen, gaur egun *piñu* edo *pino* mailegua gailendu izana<sup>19</sup> eta Aranzadik hain leku-izen gutxi aurkitu izana arbol horren deiturarekin: «Los géneros *Arbutus*, *Pinus*, *Vitis*, *Sorbus* y *Vaccinium* apenas han influido en la toponimia» (1905: 31). Aranzadik, izan ere, ez zuen Erdi Aroko *Leerriço*, *Leherreaga* edo *Lerraegui* Alduidetako toponimoen berririk izan (Ik. Ostolaza 1978: 103)<sup>20</sup>.

## 5. PAGOAREN HISTORIA GUREAN

Gorago ikusi dugun bezala, pagoaren hedapena Europako ekialdetik mendebaldera gertatu zen, bai klimaren bilakaerak bai gizakiaren eraginak baldintzaturik<sup>21</sup>. Azter ditzagun orain, polikiago, konkista haren nondik-norakoak.

Duela 5.000 urte inguru, Karpato mendietan hasi eta Frantziako Mazizo Zentraleraino hedatuak ziren pagadiak; landare haiek urtean 250-300 metro berri kolonizatzen omen zituzten mendebalderantz (Ik. Huntley & Birks 1983). Gureganago etorri, pagoak, halaber, ekialdetik mendebaldera zeharkatu zituen Pirinioak eta iberiar penintsula. Peñalbaren esanetan (Ik. 1994: 826-7), duela 4.200 urte pagoak Pirinioetako ekialdea jo zuen, egun Kataluniako Pirinioa dena, eta 600 urte geroago, duela 3.600 urte, egun Nafarroako Pirinioa den lurralderra iritsi zen. “Euskalerriko mendiak” deiturikoetara (hau da, gaurko Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba biltzen dituen mendilerrora) duela 3.000 urte ailegatu zen, Saldropora izan ezik, leku honetan duela 4.500 urtez gerotzikako pago arrastoak aurkitu baitira. Cantabriako mendiak duela 2.900 eta 1.800 urte bitartean kolonizatu zituen, eta orain dela 1.500 urte Galiziako ekialdea.

Landarearen onerako nahiz kalterako, hein handi batean gizakiak berak bideratuko zuen pagoaren zabalkunde. Duela 1.500 urte pagoaren mendebalderanzko hedapena geldiarazi zuten faktoreei dagokienez, Peñalbak dio Galizian ez zirela eragile naturalak izan zabalkunde hura behartu zutenak

<sup>18</sup> «*Pinus* pollen is abundant in pollen diagrams of the Basque mountains only during the Late-glacial. It played little role during the Holocene except for the most recent period and there, the pollen of *Pinus* is referred to the *Pinus radiata* modern reafforestation» (Peñalba 1994: 828).

<sup>19</sup> Baina Landuchioren hiztegiān ageri denez, XVI. mendean, Araban zegoeneko «pinoa errexala» itzultzen zuten gaztelerazkoko «pino» (Knörr & Zuazo 1998: 316).

<sup>20</sup> Bestalde, zer pentsaturik ematen du *lertxun* (*Populus tremula*) zuhaitzaren deiturarekiko pare-kotasunak. Beharbada, tantai antzean *lerra* bezalakoa izatetik etortzen ahal zaio izena lertxunari; gainerakoan, lerrondoa ez bezala, hosto erorkorreko eta biotopo hezeak maite dituena baita. Batere ahai-dekotasunik izatekotan, tentagarri dirudi -txun atzizki ttikigarria proposatzeak (Ik. 1273. urtean, *Lers-suina* toponimoa, Arzamendi 1985: 326). Baina, hala balitz ere, lanak emanen lituzke argitzen bi espezieen gaur egungo banaketa ekologiko bestelakoa.

<sup>21</sup> Ekiadetik iritsi zen, halaber, *Carpinus betulus* delako zuhaitz apala (“xarma” euskaran), gaur egun Nafarroako Bortzirietako mendietan (Igantzi eta Arantza arteko San Juanxar inguruan, hain zuzen), iberiar penintsulako bizileku bakarra duena: «*Quercus*, *Corylus*, *Alnus*, *Taxus* and *Pinus* had a wide distribution in the northern Iberian peninsula during pre-Holocene times, as patchy refugia situated at medium elevations. They spread from these refugia at different times depending on climatic, geomorphological and successional conditions. *Fagus*, *Abies* and *Carpinus* could have spread through the Pyrenees. Anthropogenic disturbance at the range limit of *Fagus*, *Abies* and *Carpinus* is probably responsible for their present geographical distribution» (Peñalba 1994: 815).

(1994: 829). Nolanahi ere, landare berriaren hedatzea beste zenbait espezieren kaltetan gertatuko zen; izan ere, pagoaren sarrerak bereziki *Quercus* generoa zigortuko baitzuen, haritzak eta arteak altura apalagoko mendietan gorde zirelarik. Ezaguna da, hain zuzen, pagadiak kasik monoespezifikoak izaten direla, oihanetan argitasun eskasa iragazteaz gainera lur zoru bereziak egokitzten dituztela eta. Hona zer dioen Montserratek, Pirinio erdialdeko lekukotzaz: «La extensión de *Abies* se produce mientras *Fagus* empieza a aparecer de forma esporádica en Tramacastilla y disminuyen o desaparecen *Tilia*, *Fraxinus*, *Ulmus* y *Taxus*. El inicio de *Fagus* se produce más tarde y coincide con una importante disminución de los porcentajes de *Quercus*» (1992: 93)<sup>22</sup>.

Garai hartako landaretzan, beraz, bereizketa garrantzizko bat gertatuko zen: azken milurteetan zehar kasik nonahi nagusitutako *Quercus* generoak ordutz geroztik eskualde apaletan aginduko zuen soilik; pagoa, berriz, ezarriezarian, harizti, artadi eta ameziak murriztu eta 500-1.500 metro bitarteko mendi gainetan ezarriko zen<sup>23</sup>. Aldaketa handia ekarriko zuen horrek, baina ez bat batekoa; ohar bedi *Quercus* generoak gizakiarentzako bizileku erosenetan nagusi jarraituko zuela, haritza gizartearen guztizko arbola izanen zelarik. Jakina denez, zenbait hizkeratan bat eta bera izan dira, oraindaino, *zuhaitz* eta *haritz* kontzeptuak (eta ez Bizkaiko euskaran bakarrik), Kandido Izagirrek Altsasun jasotako lekukotasun honek adierazi bezala: «Bi edo iru andre izan dira ‘el árbol’ *araitza*, ‘el arbolado’ *araizdiya*, ‘el manzano’ *sagarraitzta*, ta ‘el nogal’ *intxorraraitza* eman dituztenak» (1967: 51)<sup>24</sup>.

Zabalkunde horretan pagoak bere alde baliatuko zituen, besteak beste, gizakiak eragindako erreketak eta soilketak; izan ere, haritza baino hazkunde azkarragokoa baita, eta arinago bereganatzen baititu lurralte berriak. Hazkunde bizkorrago horrek berak, hain zuzen, pagoa erakargarri bihurtuko zuen ordura arte haren ezagutzarik ez zuen gizakiaren begietan. Zentzu horretan, argibide interesgarria ematen du Corominasek gaztelerazkó *haya* hitzari buruz proposatutako etimologiak: «designaría primitivamente la madera de este árbol, y procederá por lo tanto del lat. (MATERIA) FAGEA ‘(madera) de haya’, derivado de FAGUS ‘haya’» (Corominas & Pascual 1984). Begi eman, ordea, Corominasek, nahigabeak bezala, adierazten digunari: pagoari *haya* izeina eman zioten estraineko gaztelau haien ez zutela pagondoa ezagutzen, beren herrietatik franko urruneko mendietan haziko baitzen, eta, zuhaitz harenik ikusi gabe ere, salerosketan *pago zura* eskuratu eta landuko zutela.

<sup>22</sup> Oro har, Iberia iparraldeko bilakaera bera da: «However, analysis of pollen (rather than frequency) showed a sharp decrease in concentration of *Quercus* and *Corylus* just as *Fagus* began to spread (...). This may suggest a massive invasion by *Fagus* of the former *Quercetum mixtum* which was confined to lower altitudes, where it has remained dominant until the present time» (Peñalba 1994: 822).

<sup>23</sup> *Quercus* generoak baso helduak zituen Pirinioetan duela 10.000 urte ere: «El desarrollo holoceno de *Quercus*, presente en todas las localidades desde 10 Ka y que fue mucho más rápido en las localidades cercanas al Océano Atlántico (...), sugiere que la limitación de su desarrollo en las localidades del Pirineo Central y Oriental era fundamentalmente de tipo hídrico (...). La importancia que alcanza *Pinus* en las regiones alejadas de la influencia atlántica entre 10 y 9 Ka sería representativa de esta continentalidad acentuada» (Montserrat 1992: 100).

<sup>24</sup> Nolanahi ere, Europaren barrena oso zabaldutako kultur ezaugarria dirudi horrek. Hona zer dioen Georges Lacombek, J. Vinsionen eta M. Meilleten lan bana iruzkinetan: «Il ressort de là que pour les Indo-européens comme pour les Basques, les idées de *bois*, *arbre* et *chêne* étaient étroitement apparentées, car *aritz* en euskara signifie à la fois *arbre* et *chêne*, et M. Vinson a montré que *zur* “bois” entre dans la composition de beaucoup de noms basques à sens d’arbre en général et de tel ou tel arbre en particulier» (Lacombe 1920: 49).

Pagoaren hedapena eta gizakiaren aurrerabidea eskutik joan zirelako argibide ugari eskaizten dizkigu palinologiak<sup>25</sup>: Peñalbak dioenez (Ik. 1994: 818), iberiar penintsularen iparraldean *Fagus* generoa ongi ezarria zen garaian, duela 2.000 urte inguru, *Cerealia* generoa landarediaren %1 izatetik %5 baino gehiago izatera igaroko zen; eta garai berean azalduko ziren lehenengoz *Juglans* (intxaurra) nahiz *Castanea* (gaztaina) generoak, eta ugaritzen hasiko zen *Olea* dela-koa (olibondoia): guztiak ere gizakiaren iharduera “salatzen” duten landareak.

Dena den, Montserratek dioenez (1992: 95-96), pagoaren hedapenean gizakiaren urratza erabakigarri izanik, ez litzateke ahaztu behar azken buruan eragile klimatikoek agindu zutela haren zabalkundea non mugarritu<sup>26</sup>.



Pagoaren sarrera iberiar penintsulan: Zenbakiek orainaldiarekiko milurteak adierazten dituzte. Lerroek antzinatasun bereko uneak lotzen dituzte. (Iturria: Peñalba 1994: 827)

<sup>25</sup> Gizakiarekiko hartueman horretaz mintzo bide zaigu, halaber, *hêtre* izen frantsesaren azalpen etimologiko hau berau (Bloch & Wartburg 1964): «Il a vécu longtemps à côté de *fou* (lat. *fagus*), celui-ci désignant les grands arbres qu'on laisse pour la reproduction (dans quelques régions *fayard*, 1371, *foyard*), tandis que *hêtre* était le nom des jeunes troncs qu'on coupait à intervalles réguliers et qui repoussent sur les souches en assez grand nombre. Cette distinction s'est perdue plus tard en fr., peut-être à la suite d'un changement survenu dans la méthode d'exploitation de la forêt, et *hêtre*, remplaçant *fou*, a fini par désigner aussi l'arbre adulte».

<sup>26</sup> Hurrengo pasarte honek ederkil laburbiltzen du pagoaren bilakaera, besteak beste haritzaren, hurriztaren eta lerraren hedapena ez bezalakoa zertan den argituz: «It may be concluded that most tree taxa (*Quercus*, *Corylus*, *Alnus*, *Taxus* and *Pinus*) had a wide distribution during pre-Holocene times in the northern Iberian peninsula as patchy refugia situated at medium elevations. The different species spread from these refugia at different times depending on climatic, geomorphological and successional conditions. This explanation does not apply to *Fagus*, whose date of spread depended on the geographical position of the site. The existence of local refugia cannot be proven with the present available pollen data. *Fagus* could have spread in the northern Iberian peninsula through the Pyrenees. The spread is viewed as an increasing colonization of the mixed oak forest by *Fagus*. The vegetation mosaic resulting from this colonization evolved with time» (Peñalba 1994: 829).

## 6. ZENBAIT ONDORIO

Pinua, hurritza, zumarra edo haritza baino berriagoa izanagatik ere, honez gero jakin badakigu Pirinioetan pagoak ongi ezaguna izan behar zuela erromatarrek iritsi aurreko garaietan: bertako jendeak gutxienez 800 urte izan baitzuen, pagoa iritsi eta erromatarrek azaldu bitartean, landare hari izenen bat emateko. Eta, halere, erdizka baino ezin erantzunen diogu Campionen harako hari: «Si los primitivos baskos conocieron las hayas, es indudable que no las llamaban *fago, pago, bago*» (op. cit. 254). Izan ere, ez baitakigu zein izen eman zioten, ez eta bakarra eman ote zioten ere. Nire ustez, ekiadetik mendebalderako zabalkundean, pago landareak deitura bat baino gehiago jasoko zuen duela 3.000 urteko *protoeuskara* hartan. Akitanian hasi eta –Pirinioak barrena– Iberiako lautadetaraino, lurralte zabalegia baitzen hura berehalako batasun bat gerta zedin. Eta, hain zuzen, bertako polimorfismo desordenatuari latindarren batasun berdintzailea gailenduko zitzzion; izan ere, lekuak lekuko hizkeretan pagoaren deitura adosteke zegoen tenorean iritsiko baitzen, nire ustetan, erromatarren sarrera handia.

Kristo aurreko II. mendetik aitzina, erromatarrek kasik etengabeko presentzia eduki zuten gurean, eta are nabarmenago ezarriko ziren gero, Kristo aurreko 75. urtean *Pompaelo* fundatu zutenetik (Ik. Goyhenetche 99: 50). Ekiadetik baitzetozen, latindar haien aspalditik ezagutuko zuten pago landarea, eta Pirinioko artzainek baino askoz trebeago usatuko zituzten haren zurajeak, molde guztieta eraikuntzarako zerabilten berenezko ahalmen harrigarri hartaz baliatuz. Bien bitartean, erromanizazioak aurrera egin ahala, bertako herritarrek bortxa handirik gabe hartuko zuen latinetiko maileguua, mundu zibil nahiz militarrari buruzko hainbat izen abstraktu eta zehatz hartu zituzten bezala: *golde* (latin *cultus*), *piku* (latin *ficum*), *gaztelu* (latin *castellum*), *bake* (latin *pacem*) e.a. Eta, esan bezala, mailegu hark hizkera guztiak elkartuko zituen, zoko guztieta iritsi eta euskarazko ordaina guztiz desagertarazteraino. Akitanian, esate baterako, latindar grafiaz zizeldutako grafitoek ageri dutenez, bertakoek *Fago deo* idatziz gurtzen zuten pago-jainkoa, haritzaren eta artearen Jainkoak hitz indigenez irudikatzen zituzten bitartean: *Arixo deo eta Aretehe deo*, hurrenez hurren (Mitxelena 1985: 431)<sup>27</sup>.

Nire irudiko, inon izatekotan, pagoaren izen *zaharra* oraindik toponimian aurkitzen ahal liteke, Piriniokoan batik bat. Gogoan bedi, hain zuzen, gaur egun *orre* eta *ler* hitzekin gertatzen ari dena: izan ere, urte gutxirenean buru, liburuetan eta leku-izenetan baino ez baitu iraunen deitura haien leku-kotzak, *ipuru* eta *pinu* latindarren mesedetan. Ez naiz deus berirrik esaten ari, ordea, gorago Campionek berak aurreratutakoa gogoratzen baizik: «Acaso se mantiene en algunos nombres topónimos inexplicados, de los cuales pudiera extraerle el análisis comparativo o alguna inesperada indicación lingüística en algunos documentos» (op. cit. 253).

Eta toponimiaren inguruko bilakaerak, leku nahiz garai oro, berdintsu gertatu direlakoan, zilegi bekit, azalpen hau bukatzeko, etxeko adibide moderno bat aipatzea: XIX. mendearren hasieran Leitzako basozaineak izai landa-

<sup>27</sup> Gaur egun ulertezinak diren akitanierazko idazki botiboen artean, agian pagoaren jatorrizko izena dago; hala nola, Akitaniako lurraldetatik kanpo, iparralderago, *deo Robori* latindarra azaldu den, *Arixo* deo indigenaren ordain.

re mordoska bat ekarri zuten Iratiko oihanetik, mintegi bat antolatzeko asmoz. Leku hari *Izaieta* izena paratu zioten; zuhaitza ez ezik, izena ere handik ekarri baitzuten, Aezkoako, Zaraitzuko edo Erronkaribarreko basolariei ikasita<sup>28</sup>. Urtea joan urtea etorri, ordea, harrigarrizko zuhaitzak bihurtu ziren izai landareska haien, Iratiko handienetan pare, adituek diotenez, eta gaur egun, ihartzen hasixe direnean ere, oraindik *Izaieta* esaten zaio paraje famatu hari, arbolari berari bertakoek *piñue* edo *abetaoa* esaten dioten arren: leitzarrek *Izaietako piñuk* deitzen baitiete, eta alferrik galdeztuko baitiezu *izaia* zer den<sup>29</sup>. Horratx toponimiaren paradoxa bitxia: urte gutxirenen buru, apena izai alerik geldi dadinean, oraindik ere *Izaieta* deituko baitzaio Leitzako paraje eder hari.

Arkeologiaren izenik edo ahalmenik ez izan arren, palinologia bezalako ikasbideek hizkuntzaren historiaurreko zenbait bazter ezagutzeko tresna izan litezkeela erakustea zen honako saio honen asmoa. Izaia ere, euskal purismoarekin identifikatu delako beharbada, badirudi utzixe egin zaiola garai batez euskalarien zeregin larrienetako bat zenari: hots, maileguzko hitzaren inguruiko ikerketari. Eta nago, maileguen guretartze itsuaren ondorioz, ez ote duen laharrik hartu hizkuntzaren historiaren baitan hain ikasgai ederra eskain lezakeen bidea. Bihoakie hemendik, neure apalean, oroirgarri zinezko hau, bide horretan saiatu ziren Campion, Baraibar, Azkue, Aranzadi, eta enparauei. Nolanahi ere, guztiz gehiena argitzeko dago oraindik, eta biharko ikerlanek esan beharko dute hemen azaldutako argudioek batere funtsik daukaten ala, aitzitik, ‘haltza oihanaren bista’ izan ote diren.

## BIBLIOGRAFIA

- ALLABY, M. (1998), *Oxford Dictionary of Ecology*, Oxford University Press, New York.
- ALLEN, J.R.M., HUNTLEY, B. and WATTS, W. A. (1996), “The vegetation and climate of northwest Iberia over the last 14000 yr”, *Journal of Quaternary Science*, 11, 125-147.
- ARANZADI, T. (1905), *La flora forestal en la toponimia euskara*, San Sebastián.
- ARZAMENDI, J. (1985), *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*, EHU, Bilbao.
- AZKUE, R. M. (1984) [1905-1906], *Diccionario Trilingüe Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia.
- BÄHR, G. (1929), “Nombres de las plantas en vascuence”, *RIEV*, XX, 449-454.
- BARAIBAR, J. (1918), “Gazabi”, *RIEV*, IX, 29-30.
- BLOCH, O. & WARTBURG, W. V. (1964), *Dictionnaire étymologique de la langue française*, Presses Universitaires de France, Paris.
- BYNON, T. (1981), *Lingüística histórica*, Ed. Gredos, Madrid.
- CAMIÓN, A. (1985) [1930], *Orígenes del pueblo euskaldun III*, Obras Completas, Ed. Mintzoa.
- COROMINAS, J.; PASCUAL, J. A. (1984), *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Ed. Gredos, Madrid.

<sup>28</sup> Bitxia da Aranzadik dioen hau: «El *Abies pectinata*, que los roncaleses y suletinos lo pueden ver en sus pastoreos y contrabandos, parece que se llama *izaya*, pero tampoco he encontrado con este nombre ninguna Toponimia» (1905: 20). Aranzadik (Lacoizquetari jarraiki beharbada) *Abies pectinata* dioen arren, *izaia*, gaur egun, *Abies alba* gisa identifikatzen da.

<sup>29</sup> Gehienez ere, “sanguijuela” itzuliko dizute, Leitzako hizkeran *izai* esaten baitzaio izainari.

- DUPRE-OLLIVIER, M. (1984), "Análisis polínico de la cueva de Ekain", *El yacimiento de la cueva de Ekain*, Sociedad de Estudios Vascos, 61-63.
- GOYHENETCHE, M. (1999), *Historia General del País Vasco I*, Ttarttalo, Donostia.
- HUNTLEY, B. (1997), "The responses of vegetation to past and future climate changes", *Global Change and Artic Terrestrial Ecosystems*, Springer, New York, 290-311.
- (1998): "The Post-glacial History of British Woodlands", *Woodlands in the Landscape: Past and Future Perspectives*, Leeds University Press, Leeds, 9-25.
- HUNTLEY, B. and BIRKS, H.J.B. (1983), *An Atlas of Past and Present Pollen Maps for Europe: 0-13000 B.P.*, Cambridge University Press, Cambridge.
- IRIBARREN, J.M. (1984) [1952], *Vocabulario navarro*, Comunidad Foral de Navarra, Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana, Pamplona.
- IRIGARAY, J. (1977), "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (VII)", *FLV*, nº 27, 499-525.
- (1978), "Estado actual de la onomástica botánica popular en Navarra (VIII)", *FLV*, nº 28, 169-199.
- IZAGIRRE, C. (1967), "Altsasuko euskararen gai batzuk", *ASJU*, I, 45-97.
- KNÖRR, H. & ZUAZO, K. (Ed.) (1998), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- LACOIZQUETA, J.M. (1994) [1888], *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*, E. Gil Bera (Ed.), Gobierno de Navarra.
- LACOMBE, G. (1920), "Quelques noms de l'arbre en basque et en indo-européen", *RIEV*, xi, 48-49.
- LARRAMENDI, M. (1984) [1745], *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence, y latín*, Ed. Txertoa.
- LÓPEZ GARCÍA, P. (1988), "Datos polínicos del Holoceno de Navarra y Aragón", in VALLE HERNÁNDEZ, M.F., & CIVIS LLOVERA, J., *Actas de palinología (actas del VI Simposio de Palinología, Salamanca 1986)*, Universidad de Salamanca, 315-320.
- MENDIGATXA, M. (1957), "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue", A. Irigoyen (Ed.), *Euskera*, 1957, II, 119-170.
- MITXELENA, K. & POLGE, H. (1971), "Les appellations basques et gasconnes du marron d'Inde", *FLV*, nº 7, 11-14.
- MITXELENA, K. (1985) [1954], "De onomástica aquitana", *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid, 409-445.
- (1987-2001), *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbao.
- (1987) [1981], "Lengua común y dialectos vascos", *Palabras y textos*, EHU, Leioa, 35-55.
- (1990) [1961], *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- (1991), "Anotaciones para un curso de lingüística general", *FLV*, nº 57, 5-27.
- MONTSERRAT MARTÍ, J.M. (1992), *Evolución glacial y postglacial del clima y la vegetación en la vertiente sur del Pirineo: estudio palinológico*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Monografías del Instituto Pirenaico de Ecología, nº 6.
- OSTOLAZA, M.I. (1978), *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles 1127-1300*, Institución Príncipe de Viana, Pamplona.
- PEÑALBA, M<sup>a</sup> C. (1988), "Análisis polínicos de dos turberas holocenas de Navarra, España", in VALLE HERNÁNDEZ, M.F., & CIVIS LLOVERA, J., *Actas de palinología (actas del VI Simposio de Palinología, Salamanca 1986)*, Universidad de Salamanca, 327-331.
- (1994), "The history of the Holocene vegetation in northern Spain from pollen analysis", *Journal of Ecology*, 82, 815-832.
- SÁNCHEZ GOÑI, M.F. & ISTURIZ, M.J. (1988), "Estudios de palinología cuaternaria del País Vasco", in VALLE HERNÁNDEZ, M.F., & CIVIS LLOVERA, J., *Actas de palinología (actas del VI Simposio de Palinología, Salamanca 1986)*, Universidad de Salamanca, 359-365.
- URQUIJO, J. (1920), "Otro nombre del «árbol» en vascuence. Errexala «árbol»", *RIEV*, xi, 117-118.
- VINSON, J. (1919), "Études de vocabulaire basque. Le mot «arbre» et les idées générales", *RIEV*, x, 203-205.

## LABURPENA

XX. mendearren hasieran euskalari askoren hizpidean izan eta gero, pagoaren izena, garbizaleen bahea ozta-ozta iragatetik euskara batuaren mailegu arrunt izatera igaro zen. Palinologiak eskainitako datuak baliatuz, artikulugileak pago izenari buruzko gogoeta berpiztu nahi luke, estreinako euskal deitura oraindik ere Pirinioetako toponimian ezkutaturik egoten ahal delako iradokizuna eginez.

## RESUMEN

El nombre vasco del haya, *pago*, fue causa de cierto debate entre los vascólogos de inicios del siglo XX, e incluso llegó a ser cuestionado por los más puristas, que no evitaron que finalmente se convirtiera en un préstamo más del léxico “batua”. El autor del artículo, apoyado por numerosos datos palinológicos, pretende reavivar la reflexión sobre este préstamo latino, sugiriendo que la denominación vasca original de dicha especie podría hallarse todavía en la toponimia pirenaica.

## RÉSUMÉ

Après avoir été cause de débat parmi les bascologues du début du siècle dernier et avoir été questionné par les plus puristes, le nom basque du hêtre, *pago*, se convertit en un prêt de plus du lexique de “l’euskaratua”. L’auteur de l’article, appuyé par de nombreuses données palynologiques, prétend raviver la réflexion sur ce terme d’origine latine, en suggérant que l’appellation basque originale de cette espèce botanique puisse encore se trouver dans la toponymie pyrénéenne.

## ABSTRACT

After being the cause of great debate among scholars of the Basque language since the beginning of the last century and having been questioned by fervent purists, the Basque word for “beech tree”, *pago*, was taken as just one more loanword in the “euskaratua” lexicon. The author of this article, basing himself on abundant palynological evidence, aims to bring new life to the debate regarding this term of Latin origin, suggesting, in so doing, that the original Basque name for this botanical species may still be found in the Pyrenean toponymy.